

itsasondo2.0

herriko aldizkaria 55. zk (azaroa 2023)



Agapita eta Milagros bi napar, bi mende

▼ **Festen
kronika laburra**

▼ **Altzagaratera
igoeraren urtemuga**

▼ **Murumendiko itzulia,
ibilbide zoragarria**

aurkibidea

- 03-04 **Udaleko berriak**
- 05 **Haurreskola**
- 06 **Urkiye eskola**
- 07 **Guraso Elkartea**
- 08-09 **Hitzar, bidea egiten ari den
komunitatea**
- 10-12 **Festen kronika**
- 13 **Etxera Eguna**
- 14-18 **Elkarrizketa: Milagros eta Agapita**
- 19 **Asteklima**
- 20 **Altzagarate igoera**
- 21 **Motzean**
- 22-23 **Natura**
- 24-25 **Hemeroteka**
- 26 **Euskararen atala**
- 27 **Liburutegia / Errezeta**
- 28 **Agenda**

agurra



Esku artean dugu Itsasondo 2.0 al-
dizkariaren 55. alea, eta ez pentsa
nolanahikoa denik! Urtea amaitzen
ari den honetan, azken hilabeteak ekintzaz
beteak izan dira; jarrai ezazue ondorengo
orriak kuxkuxeatzen eta herrian gertatu-
takoen berri izateko aukera izango duzue.

Egian esan, udara ondorengo hilabete
hauetan Itsasondon ez dugu aspertzeko
aukerarik izan: besteak beste, herriko fes-
tak izan dira, festa ondorengo pintxo-po-
tea, asteklima astean ekintzak egin dira,
Altzagarateko igoera jendetsua izan da,
eta, Sarek eskualde mailan egun osoko egi-
taraua antolatu du Itsasondon.

Aipamen berezia egingo diegu bi herri-
tarrei. Izan ere, ez pentsa edonork esan de-
zakeenik 100 urte bete dituela!!! Zorionak,
Agapita eta Milagros!

Horrez gain, ale guztietan bezala, hau-
rreskolakoen eta eskolakoen berri izango
dugu. Eta oraingo honetan ez dira berri
makalak; izan ere, eskola behin-behineko
lekuz aldatu da. Agian batzuk jakinaren
gainean egongo zarete: eskolaren egungo
eraikina bota eta obrak egin bitartean, uda-
letxean ditugu herriko haurrak.

Aipatutakoak eta aipatu gabe geratu di-
ren kontu gehiago irakurri nahi badituzue,
jarraitu orriak pasatzen eta gozatu irakur-
ketaz, Itsasondo!

Sarrerako bertsoak

Doinua:
Maritxu nora zoaz

Gure kurtso hasiera
betikoa izan da.
Udaletxera jaitsi
ta egokitu di-da.
Bertan pasako dugu
hurongo bolada.
Urria igaro da
a ze abiada!

**URKIPE
ESKOLAKO HAURRAK**

2023ko urriaren 24an eginiko batzarrean, besteak beste, honako erabaki hauek hartu ziren:

ELORDIKO LURSAILAK LIZITAZIO PUBLIKO BIDEZ ESLEITZEA ETA HORRETARAKO PLEGUAK ONARTZEA

Itsasondoko Udalak "Elordi" izenez ezagutzen den eremuan hiru lursail ditu. Lursail horiek Beko kale amaiera eta gaur egun JASO enpresa dagoen tarte horretan aurkitzen dira. Itsasondoko Udalaren Hiri Antolamenduko Plan Orokorrean lur horiek lurzoru industrial moduan izendatzen ditu. Lursailak behin betiko onartutako Itsasondoko Hiri Antolamenduko Plan Orokorra mugatutako Industri Lurzoru Sektorizatuaren Sektorearen mugen barruan sartzen dira. Lursail horiek lizitazio publiko bidez prozedura irekian esleituko dira eta lizitaziorako gutxienerako prezioa 96.737,77€ izango dira.

Prezioaz gain, ondorengo irizpideak hartuko dira kontuan lursailak esleitzeko orduan:

- Erosleak lurzatiaren beharra justifikatzea.
- Orubearen okupazio proposamena.
- Sektorerako Plan Orokorra ezarritako baldintzak bete eta justifikatzea. Sektorearen urbanizazio aurre proposamena.
- Lurzoru horretan lanpostu berriak sortzea baloratuko da.

NEXT GENERATION LAGUNTZAK, ITSASONDOKO UDALARI LANDA EREMUETAN MERKATARITZA-JARDUERA BABESTEKO LAGUNTZAK. 2023 DEIALDIA. LAGUNTZAREN ONARPENA.

Itsasondoko Udalak landa-eremuetan merkataritza-jarduerak babesteko NEXT GENERATION dirulaguntza jaso ditu. Dirulaguntza horren helburua bertako merkataritza eraldatzen laguntzea da. Itsasondoko Udalak bere jabetzan duen Kale Nagusiako lokalean denda bat ezartzeko 399.500€ko laguntza jaso du, eta dirulaguntza horrekin proiektua %100-ean finantzatuko da. Proiektua burututa dago dagoeneko, eta hurrengo urratsa lanekin hasi ahal izateko lanak lizitazioara ateratzea izango da.



ITSASONDOKO BASERRIENTZAKO HORNIDURA SARE BERRIRAKO II. FASEA, ITSASONDOKO UDALAREN ETA GIPUZKOAKO URAK, SA SOZIETATEAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA ONARTZEA ETA PROIEKTUA GAUZATZEKO BEHARREZKO KREDITUA IZENDATZEA.

Ur hornidura sareko II. fase honek Goierri auzoari eragiten dio, eta sare berriak honako base-ri hauei emango die zerbitzua: Iraola Etxeberri, Iraola Arrese I, Iraola Arrese II, Iraola Txiki I, Iraola Txiki II, Itsasaga, Izagirre behekoa, Izagirre goikoa, Nahikari, Otadizabal, Sarobe I, Sarobe II, eta Sarobe berri. Guztira 13 baserrira dira. Proiektuak 523.906€ko kostua du, eta berau gauzatzeko Itsasondoko Udalak Eusko Jaurlaritzako EREIN laguntzetatik 150.000€ jaso ditu.

Proiektua finantzatzeko, Itsasondoko Udalak Gipuzkoako Urak S.A.rekin hitzarmena sinatu du, eta hitzarmen horri esker, hornidura sarea finantzatzeko falta diren 336.953€tatik 186.953€ Gipuzkoako Urak-ek ordainduko ditu. Lanen exekuzio proiektua idazteko fasean daude, eta bitartean Udala base-ritarrekina eta gainerako kaltetuekin bilerak egiten ari da proiektuaren berri emateko.

KALE NAGUSIA 7, 2 ETXEBIZITZAKO MAIZTERREN ALOKAIRU KONTRATUAREN LUZAPEN ESKAERA

Itsasondoko Udalarena den kale nagusia 7, 2, etxebizitzaren alokairu kontratua urtebetez luzatu zaio gaur egun dagoen maizterrari, maizterraren eskaera jaso ondoren eta legez eskubidea duela berretsi ondoren.


LURSAILEN EROSKETA, ALKATEARI NOTARIOAREN AURREAN SINATZEKO ESKUDUNTZA EMATEA

Itsasondoko Udala lursailak erosten ari da MURUMENDIKO IGAROBIDE EKOLOGIKOA INDARTZEKO ETA PAISAIA EGOKITZEKO proiektua gauzatu ahal izateko. Lursail horiek erosteko 2023 urtean Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen sailetik Garapen jasagarriko 2030 helburuak lortzeko 19.773€ jaso ditu Udalak. Erositako lursailak 25 dira eta 228.271m²ko hedadura dute. Itsasondoko Udalaren eskura pasatzen direnean, bertan biodibertsitatea bultzatzeko ekimenak gauzatuko dira.

EAE-KO AUZITEGI NAGUSIAREN 435/2023 EPAIAK EUSKO JAURLARITZAREN 179/2019 DEKRETUAREN HAINBAT ARTIKULU BALIOGABETZEAREN AURREAN UEMAK ETA EUDEL-ek EGINDAKO ADIERAZPENEI ATXIKITZEA.

EAEko Justizia Auzitegi Nagusiak 179/2019 Dekretuko hainbat artikulua baliogabetu ondoren, Itsasondoko Udalak UEMAK eta EUDEL-ek epai horien kontra egindako adierazpenak onartu zituen urriaren 24an eginiko batzarrean. Aipatutako 179/2019 Dekretuak Udal Legea garatzen du, eta hizkuntza ofizialen erabilera arautzen du.

UEMAko adierazpenean jasotzen denez, "Espainiako Auzitegi Konstituzionalak uztaillean Udal Legeari buruz emandako epaiaren ostean, Dekretuaren aurka egin du berriro Auzitegi Nagusiak, beste bi epairekin. Epai horiek euskararen ofizialtasuna bera ere zalantzan jartzen dute, askotan Udal Legeak arautzen ez dituenak ere aurreikusiz, modu prebentiboan. Eusko Legebiltzarrak kontsentsu zabalarekin onartu zuen epaitegiek baliogabetu nahi duten Udal Legea, eta azken Inkesta Soziolinguistikoak ere argi erakutsi du gizartearen gehiengo zabal batek babesten dituela euskararen normalizazioa helburu duten politikak. Beraz, epai hauek euskararen biziberritzearen aurkakoak ez ezik adostasun sozial handi baten kontrakoak ere badira. Azken batean, herritarren eta udalen erabakimena jartzen dute auzitan".





Kurtso berria Haurreskolan

.....
Ilusio handiz hasi dugu 2023-24 kurtsoa haurreskolan. Badakizue aurten haurreskola doakoa dela eta honek matrikula igoera ekarri duela.
.....

Kurtsoa 3 hezitzaile eta 11 umerekin hasi dugu; 10 haur 1-2 gelan eta haur bat 0-1 gelan. Beraz, ikasturte honetan bi gelak egongo dira martxan, 1-2 gela eta 0-1 gela. Gela hauen ratioak honakoak dira:

1-2 gela: 13 haur eta bi hezitzaile. 0-1 gela: 8 haur eta bi hezitzaile.

Beraz, haurren kontaketa eginez, 1-2 gelan 3 haurrentzako lekua dugu eta 0-1 gelan, berriz, 7 haurrentzako lekua.

Kurtsoan zehar matrikulatu nahi baduzue haurra, hilabetero egiteko aukera izango duzue aipatu ditugun ratioak bete arte. Haurreskola betetzen bada, itxaron zerrenda bat osatzen da. Izen-emateak hilabetero hilaren 1etik 10era egingo dira, beti ere, hurrengo hilabetean hasteko. Data horretan ez bada matrikula egiten, hurrengo hilabetera arte itxaron beharko da.

Haurra irailean hasteko, matrikula apirileko izen-emate epean soilik egin ahalko dute familiek. Ezin izango da epez kanpo egin.

Familiek online edo haurreskolan bertan eskaera entregatuta eman ahalko dute izena. Ekainean eta uztailean ez da haur berririk hasiko.

Ordutegia zehazterakoan, talde bakoitzaren funtzionamendu egonkorra ahalbidetu nahi izan dugu. Bi ordutegi izango dituzte familiek aukeran: **Goizeko ordutegia: 08:00etatik 14:00ak arte.**

Haurraren sarrera-irteerak: 08:00-09:30 eta 12:30-14:00: **Egun osoko ordutegia: 08:00etatik 16:00ak arte.**

Patioan geunden eta klasera sartu ginen, orduan bagenekien zerbait gertatzen zela eskolarekin: zaharra zen, oso zaharra. Uste genuen eskola bota behar zutela eta ikasturte bat eskolara joan gabe egongo ginela.

Ukraniako haurrek idatzita idatziak.

[illegible]

Hurrengo egunean irakasle batek esan ziquen:

- Kaixo, egun on, notizia txar bat dut. Kommentatu nahi nizuen eskola bota behar dutela. Dakizuenez, eskola zahartuta dago eta berri bat egin behar da.
- Ez dugu klaserik izango? - esan genuen guk.
- Bai noski, eskolak jarraituko du.
- Non? - esan genuen.
- Udaletxean. Udaletxeko langileek 1. solairua eta beheko zatia utziko digate.

Eta hementxe gaude! Oso arraroa da gure eskola zaharrera ez igotzea, baina ondo ari gara moldatzen eta pozik gaude.

GAU BELTZA.

Beldurrak piztu, Iluntasuna Bizi!

.....
Egunerokoarekin hautsi eta
bestelako bizipenak izateko
aukera eskaintzen digute jaiek.
.....



Elkarrekin ospatuta, gainera, kohesio soziala indartzeko tresna baliotsua dira, komunitatea sortzekoa. Jaiak euskaratik eta euskaraz antolatu eta bizitzearen garrantziaz jabetuta, berreskuratzeko bidea abiatu duen jai baten zabalpenean akuilu izan nahi du Euskaltzaleen Topaguneak: Gau Beltza edo Arimen Gaua bezala ezagun egiten ari den jai hain zuzen.

Amerikarrek uste dute beraiek asmatu zutela, baina azken ikerketen arabera, Euskal Herrian, garai batean, kalabazekin jolasten ziren gure aiton-amonak. Ikerketa horietan argi ikusten da Euskal Herrian, Arimen Gaua XX.mende bukaerara arte ospatu zela eta gaur egun jai hain berrasmatu egin dela. Zer egiten zuten? Baratzetik kalabaza edo arbiak hartu, hustu, aurpegi forma eman eta bide bazterretan edo etxe atarietan jartzen zituzten, auzokideak izutzeko. Askotan barruan kandela jarri eta itxura beldurgarriagoa ematen zioten kalabazari. Ez hori bakarrik: sarri, etxeko trapu zaharrek mozorrotuta ibiltzen ziren etxez-etxe, kantuan, arima galduak balira bezala.



Hitzar, bidea egiten ari den komunitatea

.....
Urtea bete da Hitzar energia
kooperatiba sortu zenetik. Gogotsu
hasitako bidea gorabeheratsua izan da,
baina aurrera goaz: ilusioz eta
ekimenez ari gara proiektu berriak
aztertzen eta komunitatea indartzeko
moduak lantzen.
.....

2022ko urriaren amaiera-
rako argia ikusi zuen Hi-
tzar Energia Komunitateak.
Ilusioz eta gogotsu hasitako
ibilbidea gorabeheratsua izan
da. Hamaika bilera egin ditugu
kooperatiba gorpuzteko, eta bi-
dean, hainbat tramite, oztopo
eta buruhauste gainditu behar
izan dira. Berri onak ere jaso di-
tugu, ordea: kooperatibak aurre-
ra egin dezan, herritar taldetxo
bat sortu da, lanerako prestasun
osoarekin; proiektu bat garatu
dugu -Iraola-, eta hori gauzatu
ahal izateko dirulaguntza ere es-
kuratu dugu. Ez da gutxi.



Harro egoteko moduko arrazoiak baditugu; izan ere, energia komunitateen mundu berri honetan, kooperatiba osatzeko gai izan gara, auzolanean, eta, beraz, lehen urratsak eman ditugu, burujabetza energetikoa lortzeko bidean.

Goierri mailan, Hitzar da auzolanean sortu den **herriarren lehen energia komunitatea**. Eta Gipuzkoa osoan ere, herriarren ekimenez eta ahaleginez osatu den bigarren energia komunitatea gara. Hernaniko Enherkom komunitatearekin batera, Itsasondoko Hitzar da juridikoki osatuta dagoen komunitate bakarra; beste asko osatze bidean daude.

Ez da aurrezteaz soilik

Mundu berria da energia komunitateena. Oraindik ere gauza asko daude lotzeko, erabakitzeko, eraikitzeko. Bide luzea dago egiteko. Eraikitze bidean, aurrera jarraitzeko asmo irmoa dugu Hitzarreko kideok, sorrean ezarri genituen helburuak bete asmoz.

Iraolako ustiatetikiko proiektuaz gain, teilatu berriak aztertzen ari gara, proiektu fotovoltai-ko gehiago martxan jartzeko helburuarekin.

Baina instalazio fotovoltai-koak ez dira izango gure lan ildo bakarra. Hitzar ez baita proiektu fotovoltai-koak jartzeko erreminta soilik, energiaren inguruko ezagutza zabaltzeko komunitatea ere izan nahi du: argindar fakturak interpretatzen jakin; argindar fakturan aurrezteko eta energia gutxiago kontsumitzeko gakoak eskaini; erabilera ardu-

ratsua egiteko aholkuak eman; etheen auditoretzak egin...

Ezagutza energetiko hori herriarrengana iristea ere bada gure asmoa. Horretarako, hitzaldiak eta tailerrak antolatzea eta bestelako baliabideak eskura jartzea izango da gure etorkizuneko erronka.

Egungo egoera irauli eta burujabetza energetikoa lortzea da gure ametsa. Ez da bide erraza izango, baina, denborarekin eta elkarrekin, ametsak egia bihurtu daitezkeela sinesten dugu hitzarkideok. Horregatik, oraindik ez bazara hitzarkide, gurekin bat egitera gonbidatu nahi zaitugu!



ZERTARAKO SORTU ZEN HITZAR?

- Egun arazo handi bihurtzen ari den krisi klimatikoari "aurre egiteko" tresna izateko.
- Ingurugiroa errespetatzeko.
- Gu geu izateko energia sorkuntzaren jabeak eta geure energia kudeatuko dugunak.
- Etorkizun batean herriko burujabetza energetikoa lortzeko.

ZEIN DIRA GURE HELBURUAK?

- Energia berriztagarria sortzea.
- Kw-ak arduratsu kontsumitzea.
- CO2 gutxiago isurtzea mundura, eta, beraz, gutxiago kutsatzea.
- Energia sorkuntzaren jabeak izatea.
- Burujabetza energetikoa lortzea.

ZERGATIK DA GARRANTZITSUA HITZARREKO KIDE IZATEA?

- Komunitate bateko kide izateko.
- Auzolana eta herriarren arteko elkarlana bultzatzeko.
- Batuta, indartsuagoak garelako eta helburuak lortzeko ahalmen handiagoa izango dugulako.
- Guk geuk gure energia kudeatzeko.
- Herriarrek izateko energia sorkuntzaren jabeak, bitartekorik gabe.

Aurtengoan ere primerako festak izan ditugu!

.....
Maiatzean hasi zen jai batzordea buru-belarri lanean festen antolaketan. Bilera oparoak izan ziren eta hainbat adinetako herritarrak bildu izan dira bileretan: ekintzak proposatu, hauek antolatzeko beharrezkoak zerrendatu, boluntarioen sarea osatu, aurrekontuak eskatu...
.....

Hortaz, lehenik eta behin eskerrak eman nahi genizkieke jai hauek posible egin dituzten guztiei eta aipamen berezia egin nahiko genieke herriko nerabeei. Beraien jarrera eta inplikazioa erabatekoa izan da eta ziur gaude beraien ekarpen eta parte-hartzerik gabe ez genuela zenbait ekintza aurrera ateratzerik izango. Bejondeizuela!



Irailaren 21ean, osteguna, hasi genituen jaietako ekintzak: hezitzaileek gazteekin batera antolaturiko tailerra lehenik eta ondoren jubilatuek eskaini ziguten askariarekin.

Ostiralean izan zen, ordea, jai hasiera ofiziala. Aurrez, ohiko zinta karrera antolatu zuten guraso elkartekoei eta Ijito jaitsierarekin ekin genion pregoiari. Herriko gazteak ziren aurtur pregoia emateko arduradunak eta jai hasiera ezin hobea eskaini ziguten!



Parekorik gabea bai izan zela batukale-roek eta hainbat herritarrek, Legorretako Irrintzi- alai Dantza taldeko kideekin batera, egin zuten Ilargi berria abestiaren koreografia. Eskerrik asko!

Buruhandiak haur eta gazteak korrika jarri zituzten.




Imanol eta Iñaki trikitilariek giro aparta jarri zuten ondoren ere, herritarrak dantza eta festa giroan erabat murgildu ginen, euria tarteka lagun baguenen ere.



Herri afari bikaina zerbitzatu ziguten, urtero legez, Amunda eta konpainiak, eta Muxutruk erromeriarekin amaitu zuten herritarrek eguna, gorputza astinduz! Tira, goizaldera arte gelditu ziren herritarrek baratxuri zopa eta txokolate janarekin amaitu zuten eguna.

Larunbat goizean goiz eresiarekin ekin genion egunari. Beitiko igoe-
ran atera zuten izerdi pixka bat herriko haur ta gaztetxoak, bitartean frontoian paella erraldoia martxan jartzen zen bitartean.



Bazkalostean, Oihan Vegak eskaini zuen haurrentzako DJ saioa. Horren amaieran, herriko artistak izan ziren protagonistak: Ijito Showean beraien talentuak erakusteko aukera izan zuten, abeslari, koreografia, etab.

Mozorro eguna izanik, bertan banatu ziren mo-
zorroen sariak ere: gogotsuenak, petralenak, baldarrenak, kankailuenak, xelebreenak, kuttunenak, trebeenak... denetik izan genuen!



Gosea berriz piztuta, guraso elkartekoek eskainitako han-burgesa janarekin ase ginen.



Oihan Vegak gaueko saiori ekin zion, helduei zuzendurikoa izan arren, arratsaldekoaren oso antzekoa izan zen. Musikarekin jarraitzeko N-Lezz DJak bere emaldia egin zuen, eta gazte zein ez hain gazte dantzan jarri zituen, gustu eta estilo ezberdinak uztartuz.



Igandean dagoeneko antzematen zen nekea eta jende gutxiagok ikusi zuen goizeko eresia. Haurren gozagarriako puzgarriak egon ziren goiz zein arratsaldean. Eguerdian, berriz, hamaiketakoa izan genuen Arbelaitz elkartearen eskutik.



Siestarako tartea izan genuen, arratsaldeko giza proba zein pilota partidaren aurretik. Hori da hori sasoia!



Amaiera emateko, Ijitto igoera izan genuen, herriko gazteek Ijitto Kirol Elkarteari pasa zioten erreleboa eta hurrengo urtean beraiek izango dira pregoiaren bidez herriko jaiei hasiera emateko arduradunak.



Jaiak amaitu eta balorazioak egitea otu da. Urriko herri bizitza batzordean egin genuen balorazio saioa eta festak orokorrean ondo baloratu diren arren, hobetzeko zenbait alderdi ikusi dira: paella janerako garbiketa nola egin, boluntarioen zerrendan lanak ondo zerrendatu, ekintza guztien argazkiak izango ditugula bermatzeko arduradunak zehaztu...

Hobetzeko beti dagoen arren, zorionak Itsasondo!

Urriak 14, Sareko “Etxera Eguna”

Urriko zubian eskualdeko Etxera Eguna ospatu zen, eta horretarako hainbat ekintza prestatu ziren, Itsasondoko eta eskualdeko beste herri batzuetan. (Lazkao, Beasain, Ordizia, Legorreta eta Ataun).



Helburu nagusia preso eta errefuxiatu dauden guztiak etxean egon behar dutela aldarrikatzea zen eta horretarako ekintza ezberdinak antolatu ziren.

Ostiralean, Mikel Oteguiren margolanen eta Nekane Munduateren tortutaren inguruko obren erakusketa egon zen.

Zoritzarrez, Koldo Lakastaren hitzaldia bertan behera gelditu zen, gaixotasun arazoak zirela eta.

Gaia “Presoak, lehen, orain eta gero” izanda, Koldo hizlaria izatea oso interesgarria iruditu zitzaigun. Izan ere, urteetan preso egon zen espetxe ezberdinetan eta oso gertutik eza-
gutzen du errealitate hori.

Larunbat goizean berriz, herriko hainbat aktorek “ihes gela” deituriko jolas batean parte hartu zuten.

Jolas horretan, Euskal Herriko historia markatu zuten hainbat pertsonaia aukeratu ziren, bakoitzak zegokion garaiko gertakizunak kontatzen zituen eta ondoren galdera bat egiten zitzaieen taldekideei, (beti zenbaki batekin lotura zuena, kuxak ireki ahal izateko). Asmatuz gero, hurrengo pertsonaia eta historiara joaten ziren.

Ibilbidea kronologikoki antolatu genuen: lehen pertsonaia Oneka (Eneko Haritzaren ama zena) izan zen, eta hark preso zeuden emakumeak askatzen zituen; ondoren, Eneko Haritzak kartzelan urte gehiegi zeramakiten presoak; ondoren, Belaz Mendaraño kapitaina eta Maria Bortari (Amaliurreko batailakoak), horiek preso gaixoak askatzen zituzten, kapitaina bere semearekin batera kartzelan hil zelako. Elvira Zipitria andereñoa ere agertu zen, eta berekin frankismo garaiko

zapalkuntza eta euskararekiko debekua landu ziren. Amaitzeko, Sarrionandia eta Kizkitza Gil de San Vicenterekin erbeste eta errefuxiatuen mundua landu zen.

Helburua momentu hainbat momentu historiko aztertzea eta orain bizitzen ari garen momentuarekin konparatzea izan zen, eta ondorioztatzea denak kanpoan eta etxean egon behar luketela.

Ondoren, bazkaria izan genuen Iker Mendizabal eta Imanol Iturrioz sukaldarien eskutik, eta bukatzeko “DJ BULL”.

Egia da espero zen baino jende gutxiago egon ginela, baina kontuan hartuta zubia zela, balorazio ona egiten dugu eta azpimarratu nahi dugu Itsasondoko Sare taldetik jendearen prestutasuna, ekintzak antolatu eta aurrera eramateko jarrerarengatik. Txikiak bagara ere, ekintza ezberdinak beti ateratzen dira aurrera!

Beraz mila esker guztioi!

Preso eta errefuxiatuak etxera!!!!

Itsasondoko SARE taldea.

Agapita eta Milagros Itsasondoko amonak

100 urte bete dituzte

.....
Agapita Saralegi Altuna 1923ko otsailaren 11n
Araitzko bailaran, Atallon, jaioa,
Zortzi senideetatik bigarrena.
1961.urtean Itsasondora bizitzera etorria.

Milagros Pascual Erro 1923ko urriaren 7an
Lekunberrin jaioa eta bost anai-arrebetatik zaharrena.
1955 urtean Itsasondora bizitzera etorria.
.....

Nola gogoratzen dituzu eskola garaiak?

Milagros: Gure etxea ez zegoen herrian bertan, 1,5 km ingurura zegoen. Goizero eta arratsalde-
ro herrira joaten ginen eta nes-
kak eta mutilak elkarrekin ego-
ten ginen. Garai hartan neguak
gogorak izaten ziren Lekunber-
rrin, eta elurra egiten zuenean,
katuska handi batzuk jantzi eta
oinez joaten ginen, bazkari eta
guzti. Horrela, eguerdian berriro
etxeraino itzuli gabe, osaba ba-
ten etxean gelditzen ginen. Egu-
raldi onarekin, berriz, bizikletan
ibiltzen ginen. Gureak ez ziren,
etxean apopilo zeuden langileek
nak baizik.

Agapita: Zortzi senidetatik bi-
garrena nintzenez, baserriko
ardiekin eta arkumeeekin bor-
da inguruan ibiltzen ginen eta
baserriko lanetan laguntzen.
Igandetan baserritik plazaraino
jaitsi, eta bertan, herriko beste
umeekin jolasten genuen.

Ikasketak noiz arte eta non?

M: Lekunberriko eskola nazio-
naletan. Garai hartan oinarritz-
koa izango zela pentsatzen dut.
Gure aita zorrotza zen eskola
joatearen asuntorekin. Berak
garai hartarako oso ondo idatzi
eta irakurtzen zuen; matemati-
kekin ere oso ondo moldatzen
zen. Niri, alaba zaharrena iza-
nik, tarteka tokatzen zitzaidan
anaia edo ahizparen bat etxean
zaintzen geratzea, baina, nor-
malean, egunero joaten nintzen
eskolara. Irakurtzen eta idazten
ondo ikasi nuen, faltarik gabe...
eta ikasitakoa ahaztu gabe.

A: Urte gutxi egin nuen esko-
lan. Gainera, Uharte Arakileko
eskolara joan nintzen, han
osaba-izebaren etxean bizi
bainintzen denbora batean.
Irakurtzen, idazten eta kontuak
ateratzen ikasi nuen behintzat.

Umetan zer jolas mota

M: Gu gehienetan gure etxe-
tik gertu zeuden baserrietako
neska mutilekin jolasten ginen.
Harrapaketan, soka-saltoan eta
korrika apustuak egiten ibiltzen
ginen.

A: Gure auzoan zeuden beste
baserriko umeekin jolasten ge-
nuen, batzuetan trastekeeriak
eginez.

**Gaztetan zer gustatzen zitzai-
zun egitea?**

M: Dantza nire ahizparen no-
bioarekin askotan egiten nuen,
ahizpari ez baizitzaion hainbes-
te gustatzen dantza egitea. Oso
dantzari ona zen hura, edozein
dantza estilotan gainera: jota,
tangoa... denetan ondo mol-
datzen zen. Nire aitarekin ere
askotan egiten nuen eta dantza
eskatzera etortzen zien mutile-
kin ere bai, noski!!!

A: Niri Iruñera joatea gustatzen
zitzaidan. Han, nire osaba-ize-
bak eta lehengusuak nituen.
Hirian, dendak, kaleak eta he-
rrian baino distrakzio gehiago
zegoen.

Noiz ezkondu zinen?

M: 1955 urtean, Lekunberrin.

A: Atallon, nire herrian ezkondu
ginen, eta Arriben, Araitzko bai-
laran eta Atallo ondoan dagoen
herrian, bizi izan ginen urte gu-
txi batzuk.

Nola ezagutu zenuen senarra?

M: Senarra Arraratsekoa zen,
Lekunberritik gertu dagoen he-
rri batekoa. Bistaz ezagutzen
ginen eta herrietako festetan
ikusten genuen elkar. Han baze-
goen ohitura bat, igandetan fes-
tarik edo ez bazegoen inguruan,
gazteak karreteratik paseatzen
ibiltzen ginen... eta paseo horie-
tako batean biok ateratzen hasi
ginen. Nire atzetik Mugiroko

beste mutil bat zebilen, baina
nik ez nuen gustukoa, eta ho-
rietako paseo batean, Juanekin
hasi nintzen.

A: Araitzko gaztandegian lanean
nenbilela ezagutu nuen Millan,
nire senarra. Bera gaztandegira
lanera etorri zen bere osabare-
kin. Osaba gaztandegiko bazki-
dea zen eta iloba eraman zuen
Itsasondotik hara lanera.

**Etxeko lanaz aparte bestelako
lanik egin duzu?**

M: Ezkondu aurretik jostun ibili
nintzen, akademia antzeko bat
zeukan emakume batengana
joaten nintzen ikastera. Emaku-
me honek enkarguren bate-
ra-edo atera beharra zeukanean,
ni uzten ninduen arduradun. Ho-
rrela irabazi nuen nire lehenen-
go soldata. 10 pezeta, niretzako
hura izan zen.... orduan diru
asko zen. Behin ikasi nuenean,
jendearentzat arropak josten
hasi nintzen. Enkarguak herriko
eta inguruetako neska gazteek
egiten zizkidaten. Egoera ez zen
oso ona eta niri lotsa edo apuru
pixkat ematen zidan kobratzea,
eta horregatik merkeago egiten
nien. Hala ere, gero baserriko
gauzak ekartzen zizkidaten:
babarrunak, berdura... Era ho-
rretan ordaintzen zidaten, eta
ni gustura!!!! Janari horiek oso
ondo etortzen ziren etxean.

A: Bai. Gaztea nintzenean, Iru-
ñean eta Donostiako pare bat
etxetan aritu nintzen lanean.
Betelun bainuetxea zegoen eta
han ere udaran lana egin nuen.
Ezkondu aurretik, herriko gaz-
tandegian nengoen lanean eta
han ezagutu nuen nire senarra.
Ezkondu ondoren eta Itsason-
dora etorri ginenean, bestelako



Agapitaren omenezko festan eskolako haurren oparia jasotzen.



Agapita bere hiru seme alabarekin.



Atallon, senarra eta hiru seme-alabarekin.



Agapita lagunekin.

lanak ere egin nituen. Gure etxe azpiko bodegan oiloak, konejuak eta pare bat txerri izan genituen eta haiek gobernatzen nituen. Atzean, baratza ere baguen eta tarteka han aritzen nintzen.

Zenbat seme-alaba dituzu?

M: Zazpi seme-alaba segidan izan ditut: bost neska eta bi mutil. Denak Itsasondon jaioak.

Bitxikeria bular esnearekin

Nik esne asko edukitzen nuen, ume guztiak ia bata bestearen segidan izan bainituen eta bularreko esnea jaio berriari eta aurrekoari ere ematen nion 2-3 urtera arte. Behin gizon bat etorri zitzaidan etxera, belarrira esnea botatzeko eskatuz, min

handiekin zebilela eta bular esnea ona omen zen. Nik ezetz esan nion. Nola botako nion belarrarian! Pote batean sartu eta belarrarian botatzea ere ez zitzaien okurritu. Beste behin emakume bat etorri zitzaidan, bere semearentzat esnea salduko nion galdezka. Hari ere ezetz esan nion. Esan bezala, nik esnea nire bi haurrak elikatzeko behar nuen. Beste behin, alaba zaharrena jaio berria zela, Lekunberrin, perretxiko bila joan ginen anaia eta biok. Bat-batean, suge bat azaldu eta nire atzetik, ezin nuela gainetik kendu. Ni ikaratuta, korrikan ihesi, baina hura atzetik. Anaia esaten zuen esnea usaintzen zutela eta horregatik zebilela atzetik. Hark goraka joateko esan zidan

eta horrela egin nuen. Despistatu nuen azkenean. Susto ederra izan nuen!

A: Hiru seme-alaba izan ditut eta hirurak nafarrak, Arriben jaiotakoak. Zaharrena bertako eskolara joaten hasi zen, eta beste biak Itsasondora etorritakoan hemengo eskoara joan ziren.

Itsasondora bizitzera etorri zinenen, nora etorri zinen?

M: Hasierako urteetan, Etxeberri zaharrean bizi ginen, eta Latine zaharra bota ondoren, egin zuten etxe berrira joan ginen bizitzera.

A: 1961ean edo inguruan etorri ginen Mujika-etxera. Geroztik hemen bizi izan naiz gaur arte. Etxea 1956an eraikia da, eta ize-



Milagrosen omenezko festan eskolako haurren oparia jasotzen.



Milagros Maite, Euri eta Maule bilobekin.



Milagros ahizpa eta ilobekin.



Agapita, Manoli, Milagros, Jexuxa eta zaintzailea Nautikon.

nak dioen bezala, gure familia eta senarraren beste hiru senideen familiak bizi ginen.

Eta aurretik non bizi izan zinen?

M: Itsasondora etorri arte Le-kunberrin.

A: Umetan eta gaztea nintze-nean, Atallon, Errezabal izeneko baserrian bizi nintzen. Ezkondu ondoren eta lehen 6 urteetan Arriben, errepide ondoan dagoen etxe batean, bizi izan ginen. Azpian herriko denda genuen. Han jaio ziren nire hiru seme-alabak. Atallo eta Arribe Araitzko bailarako herriak dira.

Gaur egun nola pasatzen duzu eguna?

M: 10ak aldera jaiki, gosald

preparatu, eta seme-alabaren batekin paseatzera joaten naiz. Ordu edo ordu eta erdi kalean nabil eta gero etxera bueltatzean, bazkaldu egiten dut. Batzuetan siesta txikia egin eta berriro kalera beste ibilaldi bat egitera. Arratsaldero, kafea ere hartzen dugu lagunekin, Ondoren etxera, telebista pixka bat ikusi, afaldu eta lotara...

A: 09:30 aldera jaikitzen naiz eta gosaltzen dut berehala. Gero, prestatu ondoren eta eguraldi ona egiten badu, alabarekin oinez herriko plazaraino joaten gara. Dendan erosketak egin, eta etxera itzultzen gara. Jardinean egotea gustatzen zait eta han eserita egoten naiz. Garaiz bazkaltzen dut eta, ondoren, siesta egiten dut. Arratsaldean

ere jardinera ateratzen naiz edo telebista pixka bat ikusten dut. Irratia entzutea ere gustatzen zait. 8ak aldera afaldu eta garaiz ohera joaten naiz.

Gerra garaiko zein oroitzapen dituzu?

M: Gehienbat sirenak gogoratzen ditut. Haiek jotzen zituztenean, korrika joaten ginen denak lurrazpiko babeslekuetara. Han egoten ginen arriskua pasa arte eta berriro sirena jotzen zutenean, atera egiten ginen. Gu La Casilla izeneko etxe batean bizi ginen eta ez zen gurea. Etxea Diputazioarena zen, aitzak beraientzat egiten baitzuen lana. Gerra garaian, soldaduek gure etxe atarian egiten zuten guardia. Behin soldadu talde

bat etxean egon zen eta alde egin zutenean, etxe guztia zorritz beteta utzi zuten. Maindi-reak, burukoak eta beste guztia ere, uretan irakiten jarri behar izan genuen. Gu oso umeak ginen, baina soldaduen arropak konpondu behar izaten genituen, botoiak josi, zuloak sare-
ratu...Baina goserik ez genuen pasa, estutasunak bai.

A: Nafarroako Erriberan, Iruñean... hildako asko izan ziren. Gure bailaran lasaiagoa izan zen eta ez dut horrelako oroitzen berezirik. Nire herriak Gipuzkoarekin egiten du muga, eta gogoratzen dut Tolosan eta inguruan egoera latza bizi izan zutela.

Eta gerra ondorengoko oroitzenak?

M: Errazionamendua zegoen, kartilla batekin joaten ginen elikagai bila, ilaran jarri eta... Bainan lehen esan bezala, guk gosea ere ez genuen pasa. Animaliak genituen, txerriren bat, oiloak, ahateak ere... txerriak, oilaskoak, arrautzak. Ayestaran hotelekoei saltzen genizkien oiloen arrautzak eta guk ahateenak jan, arruntagoak zirelako.

A: Baserrian bizi ginen, eta kalean bizi zirenak baino hobeto garai hartan. Babarrunak, oiloak, txerriak eta baratza-
koak berdura bagenuen behintzat. Tolosako azokara ere joaten ginen arkumeak, gazta... saltzera.

Umeak denak etxean jaio-takoak dira?

M: Bai, denak etxean jaio ziren, gazteena izan ezik, Donostiako erresidentzian jaio baitzen.

Lehen ez zen orain bezala, ez geunden hain kontrolatuta. Haurdunaldi batean, gauez hasi nintzen kontrakzioekin eta gizona lanean, Lazkaon. Haurra jaiotzeko ez zitzaidala asko falta ikusten nuen. Etxeberri zaharretik, gauez, koinataren etxeraino joan nintzen. Koinata elkartearen gainean bizi zen. Beiti kalean eseri nintzen, ezin nuelako mina aguantatu, eta berriro martxan jarri iritsi arte. Koinata, nola nentorren ikustean, negarrez hasi zen eta semea Lazkaoraino bidali zuen bizikletaz senarrari abisatzera. Ni bueltan etxeraino koinatarekin, hura emagin lanetan ibiltzen baitzen eta lagundu zidan haurra izaten.

A: Hiru seme-alabak etxean jaio ziren. Herriko medikuari deitzen zitzaion, baina beti ez zen garaiz iristen. Bizilagunak ere laguntzen zuen.

Zenbat urte alargun?

M: 1994tik aurrera...

A: Senarra 1989an hil zen 62 urterekin. Beraz, 34 urte dira alargundu nintzela.

Atzera begiratuta nola ikusten duzu zure bizitza?

M: Gazte garaian asko gozatu nuen, oroitzen politak ditut. Ezkondu ondorengo lehenengo urteak ere onak izan ziren. Urte batzuk oso gogorrak ere egon ziren, baina urte horiek pasatu ziren. Geroztik asko disfrutatu dut. Itsasondan izan ditut lagunak eta ditut oraindik ere eta hauekin harreman onak ditut. Ezin naiz kexatu seme-alabek eta orain erregina baten mo-

duan bizi naiz.

A: Gazi-gozoa. Eskasia urteak izan ziren eta bizimodua ez zen erraza. Hala ere, gazteak ginen eta bagenekien disfrutatzen festetan, lagunekin, lehengusuekin... Iruñera joaten nintzen, egun alaiak eta bereziak izaten ziren. Ezkondu ondoren, familiari denbora eskaini behar eta bestelako lanak egin. Tolo-sara ere astero joaten nintzen, gaztetako ohiturari jarraituz. Zahartzaroan, berriaz, lasaiago, ardua gutxiago eta denbora nire modura antolatuz.

Osasunez zer moduz gabiltza?

M: Ondo, azukrea eta tentsioa kontrolatu beharra, baino oso gutxitan gaixotu naiz. Ondo jaten dut, hankak ere ondo ditut. Ez dakit zer den buruko min bat. Ezin naiz kexatu....

A: Nahiko ondo; nahiz eta bista galdu xamar dudana, ondo moldatzen naiz. Tentsioa ondo, eta paracetamol bakarrik hartzen dut. Beraz, botika gutxi behar dut. Ibiltzeko ere arintasuna badut. Hala ere, etxeko lanak egiteko laguntzarekin moldatzen naiz.

Bizitzan zehar osasun arazorik?

M: ...

A: Ebakuntza txiki batzuk izan ditut, baina ez ziren larriak. Behazunean harriak kendu zitkidaten... Zahartzean, azken urteetan begietako bista jaisten hasi zitzaidan eta tratamendua jarri zidaten gehiago ez galtzeko. Aurrerapen handiak daude eta lortu zuten.



Aste klima

Irailaren 27an eta 29an egin ziren
Aste Klimako ekintzak.

Aurten ere, Asteklimarekin bat egin nahi izan dugu. Aste hau ospatzeko datak gure herriarentzat ez dira oso egokiak izan, festen ondorena izanik zalantza izan baikenuen zein ekintza antolatzeari zegoen.

Azkenean, hiru ekintza antolatzeko erabakia hartu zen, sentsibilizazio kanpainak izan ziren guztiak.

Hezitzaileen gidaritzapean bi ekintza egin ziren herrian.

Irailaren 27an jolas-jasagarriak egin ziren. Altxoraren bila jardueran aritu ziren, zaborretan ezkutatutako pisten bila: haurrek zabor ezberdine-

tan pistak aurkitu behar izan zituzten, eta lurrean zegoen zaborra jaso. Bi taldek egiteko kolorez bereizitako probak jarri ziren, baina, azkenean, ez zirenez haur gehiegi eta talde bakarrean jardun zuten. Hori horrela, proba guztiak egin ostean altxorra eman zitzairen (landatzeko haziak).

Irailaren 29an, berriz, gaztelekuko gazteekin klima aldaketarekiko kontzientzia hartzeko dinamikak egin ziren. Gure ekintzek naturan duten inpaktua jabetzea eta hori nola aldatu dezakegun pentsatzea zen helburua.

Gaztelekuan bildu eta, eta

gazteek aste klimari buruz eta klima aldaketari buruz hitz egin zuten, bakoitzak zer zekien aipatuz. Bertaratuko gazteek beste konpromiso bat zutela-eta, ezin izan zen ekintza nahi bezala amaitu, baina tertuliak eta buruturiko pare bat dinamikak gaian sakontzeko balio izan zuten.

Ekintza horiez gain, herrian eta famili guztien sentsibilizazioa lantze aldera, mural bat ezarri zen eta herritarrei bertan argazkia ateratzeko deia egin zitzairen. Muraleko irudiekin Itsasondok ingurumenarekiko duen konpromisoa agerian utzi nahi izan da.

Altzagarateko igoerak 40 urte bete ditu

1983an antolatu zuten lehen aldiz, eta iraileko azken larunbatean 40. urteurrena ospatzeko festa egin zuten. Goizean bizikletan igo ziren Altzagaratera eta, ostean, paella jana egin zuten Itsasondoko plazan.

Jada baziren zenbait urte Altzagarateko igoera ospatzen ez zela. Itsasondoko festen parte izan ohi zen txirrindulari proba herrikoia 1983an antolatu zuten lehen aldiz; beraz, aurten bete ditu 40 urte. Horregatik, berriro ere proba antolatzeko urte egokia zen 2023a. Igoera jaien hurrengo asteburuan egitea erabaki zuten, gaua parrandan igaro ostean bizikleta hartzea ez baitzaio ideia ona iruditzen zenbaiti.

Irailaren 30eko goizeko hamaiketan 50 txirrindulari inguru elkartu ziren herriko plazan. Bertatik Aramako bidegurutzera arte guztiak batera joan ziren, eta han eman zioten irteera lau kilometro eta erdiko igoerari.

Gogotsu ekin zioten txirrindulari guztiek igoerari. Haurrek eta gazteenek segituan egin zuten aurrera, baina guztiek, norbere martxan, lortu

zuten Altzagarateko ermitara heltzea. Adin guztietako partaideak aritu ziren pedalei eragiten, baziren lehen aldiz igo zirenak, eta baita igoerako bihurgune guztiak ezagutzen zituztenak ere. Herriko txirrindulari ohiak ere animatu ziren proban parte hartzera; Jose Kruz Mujika, Aitor Garmendia eta Mikel Gaztañaga, besteak beste.

Bidean ez zuten animorik falta izan, Altzagako festak tarteko, jende dezente batu zen errepide bazterrean. Behin helmugara iritsita, indarrak berreskuratzeko aukera izan zuten txirrindulariek jaitsierari ekin aurretik.

Paella jana pilotalekuan

Erazago egin zituzten jaitsierako kilometroak. Behin herrira itzulita, parte hartzaileak aldatzera edo tabernetan zerbait hartzera joan bitartean, bazkaria prestatzen jardun zuten beste zenbaitek. Arratsaldeko hiruak aldera eseri ziren mahaiari eta Iker Mendizabalek prestatutako paella ederra jan zuten herriko frontoian batu zirenek.

Bertan, duela 40 urteko garailea omendu zuten. Joxe Garmendiari lore-sorta eta txapela eman zizkioten, baita 1983ko garaikurra ere. Aurten, lehiaketaz kanpoko proba izan da eta motordun bizikletek ere parte hartu ahal izan dute.

Parte-hartzaileek zein antolatzaileek egunaren balorazioa egin zuten eta, jada, hasi dira datorren urtera begira. Gainera, herritarren artean sortutako giroa probestuz, urtean zehar beste zenbait ekintza antolatzeko ideia ere sortu zen.



INNA MUSASHOVA eta IHOR ZAICHENKO eta beraien 6 seme-alabak

.....
Aurten iritxi dira Itsasondora
Ukraniako gerratik ihesi.
Zer kontatua badute eta
hitza eman diegu.
.....



Noiz etorri zineten Itsasondora bizitzera?

2023ko apirilaren 15ean.

Non bizi zineten lehen?

Aurretik Gasteizen eta Teruelen.

Zergatik erabaki zenuten Itsasondora bizitzera etortzea?

Itsasondon gure familia handia ondo hartua izan zelako.

Zer gogoratzen duzue etorri zineten lehenengo egunez?

Paisaia oso politak, basoak, lainoak, bakea, eta jende atsegina.

Zein lanbide daukazue?

Ihorrek esne lantegi batean, yogurtak egiten dituen "Goenaga" lantegian egiten du lan, eta Inna etxea eta haurrak zaintzen.

Itsasondoko zer ez zaizue gustatzen?

Ez dago ezer gustatzen ez zaiunik.

Eta zer duzue gustukoa?

Herriko lasaitasuna eta jendea. Paisaiak, erreka, leihotik paisaia ederrak ikustea, eskola eta autobus geltokia gertu izatea, jende zoragarria, udaleko langileak eta bizilagun adeitsuak.

Zein zaletasun duzue?

Ihorri basotatik paseatzea, liburuak irakurtzea, xakean jolastea, kirola egitea, musika entzutea, abestu eta dantzatzea gustatzen zaio. Innari sukaldatu, irakurri eta argazkiak ateratzea eta basoetatik paseatzea.

Janari bat?

Ihorrek: arraina eta gazta.
Innak: mariskoa. Umeek ukrainiako janaria oso gustoko dute.

Edari Bat?

Ihorrek: matcha mango, piña edo granada zukuarekin.
Innak: kafea. Umeek Coca-cola.

Itsasondo edo Goierriko txoko bat?

Gure etxeko balkoian dugu aukia, Itsasondoko bistak ikusteko.


Zerk sortzen dizue irribarrea?

Familiaren zoriontasunak.

Itsasondon biziko ez bazinete...?

Antzeko herriren batean, "pueblo gemelo" de Itsasondo jaja Itsasondoren "herri bikian", kar kar. Ukrainiako egoera ezegonkorra da eta gure umeak bizitzeko tokirik onena da Itsasondo.

Onddoen talde itzela lurreko ekosistemetan funtsezko talde bat izan arren (Europan 75.000 espezie baino gehiago dira), biodibertsitatearen ikuspegitik gutxi ezagutzen da oraindik. Onddoen gorputz begetatiboa mizelioa da eta harizpi formako hifaz osatzen da. Esporen bidez ugaltzen dira eta bizi-zikloan esporak eratu eta barreiatzeko 'karpoforo' izeneko organoak garatzen dituzte. Hauetako batzuk jangarri estimatuak dira.



Onddoen laborantza Itsasondon

Onddo asko eta asko landareen sustraietan sinbiosian bizi dira; mikorrizak deitzen zaie, grekotik: *mycos*; onddoa eta *rhizos*, sustraiak. Elkarketa sinbiotiko horretan, onddo mikorrizikoek fosforoa, potasioa eta nitrogenoa transferitzen dizkiote landareari, aminoazido moduan. Ordainetan, onddoek azukreak (glukosa, fruktosa eta sakarosa) eta bitaminak jasotzen dituzte. Sinbiosi hori unibertsala da eta kalkulatan da landare espezieen % 95 mikorri-eldarteekin bizi direla.

Beste batzuek, saprofito izenekoek, usteltzen ari den materia organikoa aprobetxatuz ateratzen dute bizimodua. Basoetan, batik bat, materia organikoa desegin eta birziklatzeko ez dute parekorik. Parasitoak ere badira, nola ez.

Onddoen laborantzarako bi klase horietako espezieak erabiltzen dira. Izan ere, interesatzen zaizkigun onddoak gutxi batzuk besterik ez dira, eta nonahi eta nahi adina egoten ez direnak, gainera. Laborantzaren bidez, konpetentzia egiten dieten beste espezieengandik gailentzen laguntzen diegu eta beraien 'karpoforoak' ustiatzeko, edo, ikusiko dugun bezala, beste onuraren bat lortzeko.

Onddoak landareetan txertatzeari inokulazioa deritzaio eta Itsasondon bi helbururekin hasi gara horrelakoak egiten.

Lehen helburua gaztainondoak sendatzea da. Ehun urte badira hemengo gaztainondoak gaixotzen hasi zirela: 'tinta' deitzen den gaitz batez zuhaitzak bata bestearen ondoan ihartzen joan ziren eta, tintaz gaixotu ez ziren zuhaitzei, berriz, ondoren etorri zen 'txankroa' gaitzak egin zien eraso. Biak ala biak onddoak dira.



Hala ere, eta joan den mendeko gaztainadi emankorrekin zer ikusirik ez badute ere, gure mendietan gaztainondoak bizirik diraute, hala moduz bada ere. Gaitz horiei aurre egiteko modu berri bat probatzen ari gara, onddo hiltzaile horien aurrean zuhaitzak babestuko dituen mikorri-eldarte sinbiotiko baten bidez. *Pisolithus tinctorius* izena du eta dagoeneko bi gaztainaditako 60 zuhaitzen sustraiak inokulatu dira.



Reishi



Shiitake



Pleurotus ostreatus



Pleurotus pulmonarius

Eta bigarren helburua Euskal Herrian gehien estimatzen diren onddo jangarriekin lotzen da. Gehienak mikorrizikoak dira (boilur edo trufak, gorringoa: *Amanita caesarea*; gibelurdina: *Russula virescens*, *R. cyanoxantha*; onddoak: *Boletus aereus*, *Boletus edulis*; ziza horia: *Cantharellus cibarius*; esnegorria: *Lactarius deliciosus*, etab.), eta, beraz, ezin dira bizi zuhaitzik eta baso-masarik gabe. Beste batzuk, berriz, hildako egurrean bizi dira; belarri landuak, adibidez.

Orain arte, Itsasondon 9 espezie onddo jangarri inokulatu dira. Hauetako bat, shiitake izenekoa (*Lentinula edodes*) ez da hemen naturalki sortzen, eta, mendian zabaldu ez dadin, parkeko itxitura baten jarri da.

Beste zortziak hemen naturalki ere sortzen direnez, mendian inokulatu dira. Horietako bat 'reishi' izenarekin ezagutzen da (*Ganoderma lucidum*), eta enborretako ardagai klase

bat da, gogorra. Xehetu ondoren, bere hautsa medikuntzan erabiltzen da.

Beste guztiak zuzenean jangarriak dira eta gehienak sinbiotikoak. Batzuek karpoforoa lur azpian garatzen dute, boilur edo trufak; horietako bi espezie inokulatu dira haritzetan (*Tuber aestivum* eta *Tuber borchii*). Urte gutxi barru horretarako erabiltzen diren txakurrekin begiratu beharko dugu ea itsatsi eta ugaritu diren.

Eta karpoforoa lurraren gainean garatzen dutenen artean onddo zuria (*Boletus edulis*) aukeratu da inokulazioetarako, haritzetan eta pagoetan batik bat. Urte gutxitan izango dugu horren berri.

Enbor hiletan bizi diren onddoetatik lau espezie erabili dira inokulazioetan, hauetako biei 'belarri landua' edo ostra perretxikuak deitzen zaie, *Pleurotus ostreatus* eta *Pleurotus pulmonarius*. Lehen urte haueetan izan duten bilakaera iku-

sita, etorkizun oparoa izango dutelakoan gaude.

Beste biak gutxiago ezagutzen badira ere, proba bat egitea pentsatu da aurren, alde batetik gaztainadietako onddoarekin, maitake bezala ere ezaguna (*Grifola frondosa*), zapore eta usain bikainak baititu. Gainera, bere testura irmoak prestakin mota asko ahalbidetzen ditu: salteatua, marinatua, frijitua,...

Bestea, lehoi-adatsa (*Hericiium erinaceus*) izenez ezagutzen dena, gastronomian oso preziatua den perretxiko bat da, propietate bikainak dituena: zuntz asko, proteinak eta gure organismoarentzat garrantzitsuak diren mineralak, hala nola selenioa, germanioa eta zinka.

Harrigarria da zenbaterainoko aukerak ematen dizkiguten gure basoak. Urte gutxi barru, inokulazioak frituak ematen hasten direnean, perretxiku ederrak gozatzeko aukera ere izango dugulakoan gaude.

Hemeroteca

HERRIKO JAIK (irailak 21-24)

Aurtengoan ere primeran joan dira herriko jaiak. Herritarren parte-hartzea sekulakoa izan da eta sorturiko giroa ere bai (ikusi festen kronika 10-12 orrian)

GUDARI EGUNA (irailak 27)

Urtero bezala, aurten ere, gudariak oroitzeko ekitaldi xumea egin da. Plazan elkartu eta haritzen lekuan egin zuten ekitaldia.

ASTEKLIMA (irailak 27 eta 29)

Asteklima ospatu genuen, Itsasondoko ingurumenarekiko duen konpromisoa berresteko. (ikusi artikulua 19 orrian)

PINTXO POTEA (irailak 29, urriak 6, 13 eta 20)

Aurten ere herriko elkarte zein tabernek pintxo potea eskaini dute, lau ostiraletan. Primerako pintxoak eta giro aparta izan ditugu ostiralero.

ALTZAGARATERA IGOERA (urriak 1)

Festa giro aparta izan genuen Altzagarateko igoeraren 40. urtemuga ospatzeko (ikusi artikulua 20 orrian)

"MATEO MISTERIOTSUA" NOBELA EROTIKOAREN AURKEZPEN (urriak 5)

Betzaida Urtazaren eleberriarren aurkezpena izan genuen udal liburutegian. Herritar asko gerturatu ez ziren arren, giro polita izan genuen. Bere lanen berri eman ostean liburuaren nondik norakoak azaldu zizkigun.

MILA PASCUALEN 100.URTEBETETZEA (urriak 9)

Hau da sasoia Milak duena! 100 urte betetzea ez da mauka eta meze bezala ospatu nahi izan dugu. Herriko haurrek, Udalak eta jubilatutako elkarteak opari bana eskaini zizkion jubilatuetan herritarrez inguratutik egin zioten ospakizunean. (ikusi elkarrizketa 14-18. Orrian)

ETXERA EGUNA (urriak 14)

Bidea gertu lelopean, Etxera Eguna ospatu zuten Itsasondon, Sarek antolatuta. Hamarnaka lagun inguratu ziren. Ekintza ugari egon egun osoan zehar: ihes-gela jokoa, erakusketa, bazkaria... (ikusi artikulua 13 orrian)

ESKOLA KIROLAREN HASIERA (urriak 20)

Eskola Kirolaren inguruko hausnarketa burutu ondoren hasiera eman zaio dinamikari. Eskolako haur ia denek izena eman dute eta astero, ostiraletan, aste batean LH 1. eta 3. mailakoak eta hurrengoan LH 3. eta 5. mailakoak arituko dira hainbat kirol jardueraren burutzen. Guraso elkarteko boluntarioek eta Alaitz hezitzaileak gidatuko dituzte saioak.





MATRAKA MA NON TROPPO

Pintxo poteari amaiera emateko emanaldia izan genuen. Familia guztientzako ikuskizuna izan zen. Hainbat objektu erabiliz musika egiteko modu anitzak ezagutu genituen.



PALESTINAR HERRIARI ELKARTASUNA

(urriak 20)

Palestinan ematen ari den genozidioa gelditzearazteko eskaera egiteaz gain Palestinar herriarekiko elkartasuna adierazi nahi izan zuten elkarretaratzean elkartu ziren herritar ugari.



JUBILATUEN BAZKARIA (urriak 22)

Aurten ere izan dute parada gure herriko jubilatuek bazkaria goxo bat elkarrekin partekatu ahal izateko. Udal ordezkariak ere bertan izan ziren eta ohikoa den moduan omenduei opariak eman zizkieten.

URKIKO HAMAIKETAKOAK

Ohiturei eutsi behar zaiela eta hau ere ez da nolanahikoa. Iker Mendizabalen eskutik, urriaren 22, 29 eta azaroaren 12 eta 19an 10:00etatik- 12:30era eskainiko dira. Aurrez erreserbatzea eskertu du Ikerrek. Urriaren 22an aramatarren bisita jaso zuen.

URKIKO ASTEBEBURUA (urriak 28, 29)

Berezia izan zen bai, 20 lagun inguru elkartu ginen hainbat ekintza egiteko. Mendi ibilbideak, solasaldiak, eta noski otorduak ere elkarrekin egin genituen.

Haur zein helduek primeran pasa zuten!



GAU BELTZA (urriak 31)

Aurten ere, ohiturari eutsiz Gau Beltza ospatu dugu herritar guztiak batera. Kalabazak, kontaketak, frogak eta nola ez susto ugari bizi izan ditugu Gau Beltzeko ibilbidean.



INES OSINAGA ETA JOSEBA SARRIONANDIA

(azaroak 2)

Katuen kontuak kontatzera etorri zitzaizkigun Ines eta Joseba. Eskola haurrei zuzenduriko saioa izan zen eta hauek oso tentu eta parte hartzaile egon ziren.

Josebak kantuen inguruko kontaketa egin eta ondoren Inesek, magia egiten zuen musika nahastuz eta bere ahots goxoa uztartuz. Plazerra izan zen.



BETZAIDA URTAZAREN IPUIN KONTAKETA (azaroak 8)

Lotsa, emozia eta hainbat sentimendu lantzeko aukera eskaini zion Betzaida Urtazak. Haur ugari gerturatu ziren liburutegian egin genuen saioan.

Euskara txukuntzen

EUSKARA MAKARRONIKOA

Idea on bat izan duzu.

Nazional hizkuntza.

Irakasle berdina dute.

EUSKARA TXUKUNA

Idea ona izan duzu.

Hizkuntza nazionala.

Irakasle bera dute.


Euskal Herri osoko saltokietan euskaraz "lasai" aritzeko marka sortu dute

Euskal Herri osoko merkataritzan eta ostalaritzan euskaraz hitz egiteko guneak identifikatzeko balioko duen marka bat sortu dute Eusko Jaurlaritzak, Nafarroako Gobernuak eta EEP Euskararen Erakunde Publikoak: *Euskaraz barra-barra* du izena. «Marka honek adierazi nahi du ikusten dugun tokietan zerbitzua ematen ari direnak gai direla gurekin euskaraz mintzatzeko, edo euskara ulertzeko. Beraz, haiekin lasai-lasai hitz egin ahalko dugu euskaraz, inolako gaizki-ulerturik gabe», azaldu dute antolatzaileek.

Ekimen honek Euskal Herri osora hedatzeko helburua du: «Espazio horiek euskararen eremu osoan, lurralde guztietan, identifikagarri egiteko marka bera izateak euskararen erabilera sozialari lagunduko dio, eta hiztunei konfiantza emango die», adierazi dute.

Helburua tabernetan, jatetxeetan, saltokietan eta merkataritza guneetan euskararen erabilera sustatzea da, eta euskal hiztunen «estres linguistikoa» murriztea. Marka horrekin bat egin nahi duten saltokiek hiru baldintza bete beharko dituzte: zabalik dauden bitartean gutxienez langile euskaldun bat izatea; bezeroei lehen eta azken hitza euskaraz egiteko konpromisoa hartzea; eta kontsumitzaileei euskaraz egiteko aukera bermatzea. Erakusleihan markaren ikurra jarriko dute bat egiten duten saltokiek, bezeroei adierazteko euskaraz egin dezaketela.

AI ENE!!!!!!



Azken etxea
Arantxa
Urretabizkaia



Bar Gloria
Nerea Ibarzabal



**Nik ez dakit
beste gauza
batzuen berri**
Elisa Levi



**Esperando
al diluvio**
Dolores Redondo



**Heldu garen
guztiak**
Antoni Rubio
Maria Giron



**Itsasargiko
misterioa**
Lur Gallastegi



**Nadie en
esta tierra**
Victor del Árbol



La secta
Camilla Lackberg




**Ni ez naiz
Mikel Laboa**
Unai Iturriaga
Harkaitz Cano
Joseba Larratxe



**El ladrón
de rostros**
Ibon Martin



liburu gomendioa



**MOVIMIENTO DE MUJERES,
MUJERES EN MOVIMIENTO**
Begoña Zabala

"Emakumeen mugimendua, emakumeak mugimenduan". Hitz-joko honekin, Begoña Zabala, kontakizun pertsonal eta kolektibo batean, Euskal Herrian antolatutako mugimenduen hiru hamarkada biltzen ditu: 1976 eta 2008 arteko aldia. Hainbat manifestaziotan

ohiukatutako dozena bat kontsignaren bidez, garai horretan kolektibo feminista, bereziki, eta gizartea, oro har, zeharkatu zituzten gai askori heltzen dio liburuak: lana, amatasuna, sexua, gerra, indarkeria, prostituzioa, abortua edo immigrazioa. Azken urteotan hainbat ikuspegik landu dituzte gai horiek, baina oraindik ere garrantzia handikoak dira feminismoarentzat. Horregatik, denborak aurrera egin duen arren eta mugimendu hori garatu den arren, ezinbestekoa da bideak ireki eta borrorak hasi zituztenen ondarea jasotzea eta aitortzea.

Legatza labean Orio erara



6 pertsonarentzat:

2 kg-ko legatza
5 baratxuri ale
2 tipula
6 patata
Arrain hezurrak
Condado de Almuza olio
Perrexila
Gatza
Ozpina
Ura

Prestaketa:

Arraintegian legatza labean sukaldatzeko moduan prestatzeko eskatu.

Arrain hezurrak (nik arraintegian eskatzen ditut, 200gr-rekin aski da) ura (1L) duen lapiko batean jarri, gatzez ondu eta bitsa ateraz 20-25 minutuz egosi, iragazkitik pasa, gorde.

Patatak zuritu eta zentimetro bateko lodiera duten xafletan zatitu. Tipula zuritu eta juliana eran moztu. Labeko erretilu batean Condado de Almuza olio bota eta patata xafla baten laguntzaz erretilu guztitik olio zabaldu. Patatak erretilu gainean jarri eta hauen gainean tipula, gatzez ondu eta arrain hezur salda gainetik isuri. Labea bero dugula 150 gradutan 35 minutuz erre.

Denbora hori pasata, legatza erretiluan jarri (pataten gainean) eta labea 180 gradutan jarri, 8 minutuz erre.

Legatzak labean 4 minutu daramatzanean, salda hau isuri gainetik:

Baratxuri aleak xafletan zatituta, perrexila fin-fin moztu. Zartagin bat olioztatu eta olio bera dagoenean baratxuriak gehitu, "dantzan" hasten direnean perrexila gehitu, bira batzuk eman eta sutik aldentu. Koilarakada ozpin gehitu, pittin bat nahasi eta su motelean jarri. Irakiten hasten denean sutik kendu, legatza labetik atera eta zartagineko salda gainetik isuri.

Platerean zerbitzatu.

UDALERRI
EUSKALDUNEN
MANKOMUNITATEA